

# PARTAIDETZA AZTERGAI: NAHI, AHAL, JAKIN

## SOLASALDI ZIKLOA



**NAHI: PARTE HARTU ALA EZ PARTE HARTU, HORI DA GAKOA**

## JARDUNALDIA

MEMORIA (2023/01/26. SANAGUSTIN, AZPEITIA)

### EGITARAUA

<b>15:30-16:00</b>	<b>Izen ematea</b>
<b>16:00-16:30</b>	<b>Aurkezpena. Konfiantza eta konfiantza-ezan arakatuz</b>
<b>16:30-16:50</b>	<b>Partaidetzan eragiten duten konfidantzarako gakoak. Hizlaria: Igor Ahedo</b>
<b>16:50-17:45</b>	<b>Esperientzien mahaingurua I: Zerk ez du lagundu izan?</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- <b>Ikuspegi politiko batetik:</b> Joseba Ormazabal, Itziar Ostolaza eta Ana Telleria</li><li>- <b>Ikuspegi tekniko batetik:</b> Olatz Estensoro eta Nerea Ollokiegi</li><li>- <b>Herritarren esperientziatik:</b> Maider Martiarena eta Jon Lete</li></ul>
<b>17:45-18:15</b>	<b>Talde hausnarketa</b>
<b>18:15-19:00</b>	<b>Esperientzien mahaingurua II: zerk lagundu dezake?</b>
<b>19:00-19:25</b>	<b>Ondorio nagusiak eta itxiera</b>

## AURKEZPENEA

---

GFAko Herri Partaidetza Zuzendariak, Mikel Pagolak, ongietorria eman, Euskal Herriko Unibertsitateko Udako fundazioaren elkarlana eskertu eta ekimen honen testuinguru eta helburuak azaldu ditu. Partaidetza aukera, baldintza, eskubide eta betebeharretan eragin duten eta eragiten ari diren gakoan inguruko solasaldi ireki eta publikoak dira antolatutako hiru saioak. Helburu nagusia da «gaur egungo errealitatean eta Gipuzkoako testuinguru zehatzean partaidetzan eragiten ari diren gakoetan elkarrekin pentsatzen eta hausnartzen jartzea, ahalik eta modu barneratzaileenean». Norabide horretan partaidetzan esku hartzen duten aktore ezberdinen kezka eta ekarpenak jaso nahi dira, eta hutsuneetan eragiteko gomendio, ideia eta egitasmoak sortu.

Aurkezpenean Gizarte Kontseiluko Amaia Agirreoleak eta Izaskun Asurmendik ere hartu dute hitza. Izan ere jardunaldi hauen abiapuntuan Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseiluak azken urteetako testuinguruaz egindako hausnarketak kokatzen dira. Gogora ekarri dute partaidetza politika publikoaz ari garela eta testuinguru horretan saioaren hausnarketaren helburua konfiantza ezan eta konfiantzan eragiten duten gakoan inguruko gogoeta sustatu eta ideia horretan sakontzea dela arratsaldeko erronka. Horretarako zintzotasuna, autokritika eta askatasuna ezinbestekoak direla, guztion artean elkarrizketarako espazio segurua izatearen beharra.

Bukatzeko Maider Kortajarenak, Euskal Herriko Unibertsitateko Udako fundazioaren izenean ere hitza hartu eta lankidetzaz honen garrantzia azpimarratu du.

Jardunaldiaren edukiei eutsi aurretik bi ariketa egin dira girotzeko. Lehendabizi multzokatze ariketa bat eta bigarrenik, eskumetroaren bidez herritarren partaidetzaz esaten diren hainbat topikoen inguruan adostasun/desadostasun maila erakutsiz.

## PONENTZIA: PARTAIDETZAN ERAGITEN DUTEN KONFIANTZARAKO GAKOAK

---

Igor Ahedo

Igor Ahedo, Soziologia politikoan lizentziatua (Deustuko Unibertsitatean) eta Zientzia Politikoetan doktorea (EHUn). Parte-hartze eta Garapen Komunitarioko Masterraren zuzendaria, Zientzia Politikoko Saileko zuzendaria eta UPV/EHUko Klaustroko kidea izan da. Gaur egun, Gizartea, Politika eta Kultura Doktoretza Programaren zuzendaria eta Parte Hartuz taldeko ikertzaile Nagusia da.

Partaidetzan eragiten duten konfiantzarako gakoan inguruko ponentzia aurkeztu du Igor Ahedok. Jarraian erabili duen PPTa.

[Ikusi I.ERANSKINA: Partaidetzan eragiten duten konfiantzarako gakoak.ppt](#)



## ESPERIENTZIEN MAHAI INGURUA I: ZERK EZ DU LAGUNDU IZAN?

---

Hizlariak:

- Ordezkarari politikoak: Itziar Ostolaza, Joseba Ormazabal eta Ana Telleria
- Teknikariak: Olatz Estensoro eta Nerea Ollokiegi
- Herritarrak: Mainer Martiarena eta Jon Lete

Igor Ahdok kokatu dituen gakoak aintzat hartuta eta **norbere esperientziatik**, elementu eta adibideak jartzea eskatu zaie honako galderari erantzutea:

### ***Zerk ez du laguntzen? Zerk baldintzatzen du konfiantza?***

50 minutuz eta bakoitzaren ardura edota jardute esparrutik autokritika ariketa batean galderaren atzean dauden elementuak aletu eta mahaigaineratu dituzte.

Ordezkarari politikoaren hitz hartzean aipatu diren ideien artean batzuk aipatze aldera, hiru norabide nagusi aipatu dira: (1) ordezkarari politikoaren artean sortzen diren baldintzatzaile bezala kokatu dituzte egungo kultura politikoarekin zerikusia dutenak eta hauteskunderen baldintzapenak; (2) maila teknikoari begira jarrita garrantzi handiena hartu duena izan da prozesuen hastapenetatik ikuspegi juridiko eta tekniko ez inplikatzeari; eta azkenik (3) herritarrekiko dituzten baldintzatzaile bezala azpimarratu dituzte paternalismoz jokatzeari, hainbat gai herritarrekin lantzeak ekar dezakeen beldurra (ondoren "euren kontra" joan daitekeen zerbait izan daitekeelakoan), hartutako konpromisoak ezin bete ahal izatea edota batzuetan prozesuak garatzea gai/erabaki batzuekiko legimititatea lortzeko.

Maila teknikoaren ikuspegitik 3 ideia nagusi azpimarratu dira: (1) erabiltzen den hizkuntza eta erabiltzen den lengoaiak sortzen duen arrakala, (2) prozesu puntual eta "itxiak" proposatzen direla oro har (bai denbora, galdera, elkar entzun eta erantzuteko denbora oso estuekin, edota prozesuen diseinuetan ez daudela herritarrak, etab.), eta azkenik, funtzio publikoa betetzen ari izateak sortzen dituen barne hausnarketa eta kontraesanak, hala nola, herritarrei begira eta beraiei egokituta prestatzen ote diren prozesuak edota maila tekniko eta politikoan onarpena eta kudeagarritasuna izango dutenak.

Azkenik, herritarrek hartu dute hitza eta elementu berriak gehitu dizkiote konfiantza baldintzatzen duten galderari. Proposatzen diren gaiak eta metodologiek sortzen dituzten arrakala, gatazka edota mesfidantzetatik hasi dira. Horrez gain, proposatzen diren gai eta prozesuek euren bizitzetan duten eraginkortasunaz ere hausnartu dute. Denboraren gaia ere ekarri dute, konfiantzak denbora behar du, eskaintzen al zaio denbora konfiantza sortzeari? Eta azkenik, herritarrek "ni-tik gu-ra" pasa eta elkarrekin pentsatzen jartzeko zailtasunak aipatu dituzte.

Azaldu diren elementu hauek atera diren ideia guztietatik laburpen bat besterik ez dira, ondoren talde txikietakoa ariketan osatu eta elementu berriak gehitu direlarik. Hori dela eta, memoria honetako "Taldea hausnarketa" puntuan jaso dira mahainguruan sortu diren elementu guztiak.

## TALDE HAUSNARKETA

---

Talde hausnarketari ekin zaio xede taldeen arabera antolatuta, bost lantalde osatu dira: ordezkari politikoak, herritarrak (2 taldeetan banatuta) eta teknikarien beste bi: administrazioko langileekin lehena eta aholkularitzetako teknikariekin bigarrena.

Bi ariketa burutu dira:

(1) Ideiak osatu (30´)

### ***Zerk ez du laguntzen? Zerk baldintzatzen du konfiantza?***

Esperientzien mahai-inguruan sortu diren ideiak osatzea edota sakontzea izan da ariketaren helburua. Horretarako, mahainguruan atera diren ideak koloretako kartulinetan jasoak izan dira eta taldeetan ideia hauetan sakondu eta ideia berriak landu dira. Talde bakoitzak bere xede taldearen inguruan hausnarketa eta autokritika egiteko ardura izan du, eta beste xede talde baten inguruan ekarpenik jaso bada, kolore zuriko kartulinaran jaso da.

(2) Atal propositiboa (15´)

### ***Zerk lagundu dezake nik partaidetzan konfiantza izaten? Zein dira bi elementu garrantzitsuenak?***

Atera diren ideia ezberdinen artean konfiantzan lagungarriak izan daitezken gako garrantzitsuenak arrosa koloreko kartulinetan jaso dituzte.



Zerk ez du laguntzen?

Zerk baldintzatzen du herritarrek parte hartu nahi izatea?"

**POLITIKARIAK**

<ul style="list-style-type: none"><li>- Beldurrez jokatzea</li><li>- (Kontrola galduko?)</li><li>- Ziurtasunaren beharra</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Langileak ez inplikatzea hasieratik</li><li>- Ongi landu haiekin</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Egingarritasuna</li><li>- Konpromezua</li><li>- Juridikoki, ahal da?</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Karga handiegia</li><li>- Ardura politikoengan</li><li>- (Dinamizazioan gaitutako pertsonak behar dira - Aniztasuna)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Bestea onartu</li><li>- Beldurra konfiantza</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>- Erabaki administrazioa aldatzea</li><li>- (XIX. mendekoarekin gabilitza)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Espektatibak</li><li>- Ez ditugu jasotzen (beldurra)</li><li>- Beldurra esateko "Guk" nahi duguna, proposatzen duguna</li><li>- Neurriak ez jarri mahai gainean. Mugak hasieratik</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>- Legitimatea izateko</li><li>- (Prozesuak erabili)</li><li>- Zeintzuk egon dira?</li><li>- Zeintzuk ez?</li><li>- Partaidetza inperfektuak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Iristen gara "batzuegana", perfil zehatza</li><li>- Bitarteko nahikorik ez anitzengana iristeko</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>- Paternalismoaz jokatzea</li><li>- (Boterearekin dugun harremana)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Arazoa sortu ez dagoen lekuan -Sua dagoen lekua</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>- Rol nahastea (TEKNIKO-POLITIKOA)</li><li>- Rolak errespetatzea, definituak?</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Batzuetan "salto egin PISTINARA" prozesuaren garantiak eta baliabideak ondo zehaztu gabe, planifikatu</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>- Dugun kultura politikoa</li><li>- Liskarra</li><li>- Lehia</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Prozesu asko sortzen ditugun "berdinek" parte hartzeko</li><li>- (Gutxiago? Desberdinak?)</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>- Politikarien ikuspegitik partaidetza teknikariak ez dira teknikoak "politikoan" edo ikuspegi politikodunak</li><li>- Oinarrian boterea galtzeko beldurra egon daiteke</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Eragina alderdian (Kalkulu elektoralak)</li></ul>	
	<ul style="list-style-type: none"><li>- Politika publikoetan eragiteko aukerak izatea</li></ul>	
	<ul style="list-style-type: none"><li>- Erakunde publikoak barruan koordinazio beharra</li></ul>	

**AHOLKULARIAK**

<ul style="list-style-type: none"><li>- Gatazkak zerbait pertsonal edo gaizki egondako gauza gisa ez hartu</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Aholkularitzaren ezaugarrien (baldintza, baliabide) arabera antolatu gauzak</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Tempus konprimituak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ezagutza falta (aldez aurretiko kakoa, bizipena). Iritsi eta alde egin</li><li>- Herritarrekiko beldurra</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Parekoa errekonozitzeko zailtasun kulturala (denok denokiko)</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>- Aholkularitzekiko dependentzia administrazioan</li><li>- (desagertzeko bokazioa dute)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Administrazioari ezetz esaten ez jakitea</li><li>- (Premia \$, espektatibak)</li></ul>

## TEKNIKARIAK

<ul style="list-style-type: none"><li>Beldurra</li><li>- Besteen ezagutza mailari</li><li>- "Asko dakien horri"</li><li>- Lobby-ei</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Teknikariok herritarren onarpen falta. "Atrintxeratu"</li><li>- Zintzotasuna behar da</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Marko juridiko administratiboa</li><li>- Beldurra</li><li>- Lankidetzeta beharra: politikariek; beste langileekin</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- (Kultura politikoa)</li><li>- Elkarrizketarako zaletasuna benetakoa</li><li>- (entrenatu daiteke)</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Hizkera erraza, garbia falta</li><li>- Harreman pertsonalak landu behar</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Lan harreman puntualak/itxiak</li><li>- (Oso gai/ariketa jakinak, modu estuan)</li><li>- Udalaren beharrak</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Langileon markoa. Kokapena (funtzio publikoa)</li><li>- Zailtasunak kokatzeko</li><li>- (Politikoak-----herritarrek)</li><li>- Beldurrak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Herritarrek haserretzean trintxerara jotzen dugu justifikazio bila haien ahuldadean (alderdia, gutxi, betikoak...)</li><li>- Gure tokia kolokan sentitzen dugu (nahiz funtzionario izan), ez aske</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Ez da soilik udalen arazoa, beste administrazioetan ere</li><li>- Ez dugu DANTZALEKURIK</li><li>- /denborak ez daude/</li><li>- Momentu/prozesua</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zintzotasuna</li><li>- (Ez da hainbeste teknika)</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Egitura teknikoan ez da aitortzen/baloratzen</li><li>- (Gomets-enak gara)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Boterea elkar banatzea. Mesfidantza</li><li>- (Berdin depart...)</li><li>- Botere egiturak desegitea</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Herritarren beharrak jasotzen asmatu!</li><li>- Instituzioen baliabideak herri ekimenak indartzera, ez gure ardura den hori ezaugarritzen.</li><li>- Herritarren beharrak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Prozesu bat ez badago prest, ez atera udaletik. Hori da gure ardura</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Harreman horizontalagoak</li><li>- Harreman puntaletatik atera → Haien beharrekin (herriak) konektatu</li></ul>	<p>Ez gara gai politikoei konfiantza adierazteko</p> <p>Lana= Dem. Kalitatea</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Politikoa da</li><li>- Diseinu batetik harago</li></ul> <p>Marra fina: politikoa/teknikoa: Urduri</p>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Herritarrek militantziaz, taldeen biziraupenaz... hitz egin dutena</li><li>- Parte hartze teknikariak (+politikoei) puntualki dihardute → beste departamentuok baditugu harreman egonkorak eta pertsonalak (Kontuz! Arriskutsua da)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Berdinetik berdinerara lan egiteko zailtasunak, informazio guztia hasieratik izatea</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Dantzalekuak badaude: interesatzen zaigu? Behar ditugu?</li><li>- Meta parte hartzeaz ari gara, ez da interesatzen</li><li>- *Haien beharretatik</li></ul>	

## HERRITARRAK

Partidetza perfila – boterea/ahalmena – aukera/pribilegioa – egokitasuna	– Kostantzia mantentzea zaila	
	– Burokrazia. Administrazioaren zurruntasuna	
	– Informazioa ulertzea. Hizkuntza ulerterraza	
Eraginkortasuna eguneroko bizitzan – denbora falta – ordutegi zehatzak...	Jarraipenaren beharra – laguntza beharra – ordena jarri beharra	– Diru laguntzen menpeotasuna elkarteen kasuan
– Parte hartzeko baimena eman beharrik ez	– Metodologia eta dinamika zurrunak	
– Erakundeetako teknikari ezberdinek parte hartzea: ez partaidetzakoak bakarrik, hirigintza, ogasuna daramatenak arratsaldeko 5etan herritarrekin egotea	Psikologiaren hiru ikuspegi: – plazerra – boterea – edertasuna	
– Alderdi batekin identifikazioa		
– Herritarren beharretatik eraikitzea prozesuak, eta beraiek dauden lekuetara eta ordutegietara		
– Herritar eta elkarreei errekonozimendua eta aitortza egitea		
– Agendan parte ez hartzea (zein gai irekitzen diren parte hartzera)		
– Konfrontazioan oinarritutako kultura politikoa – “ez epaituak”	– Batzar irekiak ez egitea, metodologia/bideak bilatzea guztiok hitz egiteko aukera izateko – Partehartze modu desberdinak praktikatu fasilitazioan	
– Herritarrak diseinu metodologikoan parte ez hartzea		



## ESPERIENTZIEN MAHAI INGURUA II: ZERK LAGUNDU DEZAKE?

Talde hausnarketaren ondoren mahainguruko hizlariak izan dute berriz ere hitza hartzeko txanda. Hizlariak egokitu zaizkien xede taldeetan *Zerk lagundu dezake nik partaidetzan konfiantza izaten? Zein dira bi elementu garrantzitsuenak?* galderen inguruan landutako proposamenak ekarri dituzte plenariora eta beren ekarpenak egiteko aukera ere izan dute.

### Zerk lagundu dezake nik partaidetzan konfiantza izaten?

<p>Kultura berri bat</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Transbertsala</li><li>- Partekatua<ul style="list-style-type: none"><li>o Agenda</li><li>o Metodoa</li><li>o Lenguaiak</li></ul></li><li>- Zintzoa<ul style="list-style-type: none"><li>o Ongi egiten ez dena, kunplitzen ez dena aitortzeko gai</li></ul></li></ul>	<p>Konfiantza</p> <p>Intangiblea (bilatzea eta sortzea). Konfiantza, argitasuna</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Etxean (egitua barruan)</li><li>- Herritarrekin</li><li>- Harremanak</li></ul> <p>Lana eskatzen du, baina posible da baliabide eta diseinuekin. Praktika positiboak, kultura eraldatzeko</p>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Besteak (aholkulari, teknikari, arduradun politiko, herritarrak) entzutea (zer esan nahi duen) eta elkarrekin egin dezakeguna pentsatu</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>- Prozesuan hasieratik egon, teknikari guztiak aritu, historikoa egin, interes guztiak esplizitatu eta kudeatu</li><li>- Denbora + pedagogia egin administrazioarekiko</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Diseinuak inklusiboak izatea hasieratik: gaia, prozesua, metodologia...</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Umetatik parte hartzearen inguruan hausnartu eta irakastea</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Udalarekin definitu eta landu aurrebaldintzak</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Etorri ez dena bilatu</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Testuinguruak sortzea, harremanak, konfiantza</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Auzoetatik prozesu propioak: ahaldundu</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Imaginario kolektibo bateratu bat behar dugu (?). Partaidetza politika egiteko moduak. Demokrasiaren kalitatea</li><li>- Zertarako eta norekin egin argitu eta bateratu eta partekatua</li><li>- Egitura politikoa eta teknikoa</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>- Ez dut baimenik eskatu behar, politika publikoak herritarrekin lantzeko</li><li>- (Objektu/Subjektu). Kalitatezko demokrazia</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>- "Bric-aren metafora"</li><li>- Pedagogiaren beharra<ul style="list-style-type: none"><li>o Prozesuak</li><li>o Errepikatu daitezela, prozesuen beharra PROZESURAKO (indartu eta komunitatea sortzeko gai izan daitezen)</li></ul></li></ul>	



## ONDORIO NAGUSIAK ETA ITXIERA


---

Jardunaldian landutako edukien laburpena eta itzulketa bertso musikatuena bidez egin dute Alaia Martinek, Onintza Enbeitak eta Gari Otamendik.

*Parte hartzean ez dira denak  
izango barre eta algarak  
izango dira beldur txikiak  
mamu handiak ta trabak  
baina kontuan hartu beharko  
dira denen begiradak  
parte hartzea bihur ez dadin  
aurpegi garbiketa bat*  
(Alaia Martin)

*Mahaiaren bueltan eseri eta  
denok gara esatari  
Zer kolore ta zer forma jarri  
bizi dugun herriari  
baina prozesu betean beti  
behar da sensible ta adi  
sarri ateak ondo irekita  
gustatzen ez zaigunari*  
(Onintza Enbeita)





NAHI: Parte hartu ala ez parte hartu, hori da gakoa

**Partaidetzan eragiten duten konfiantzarako gakoak**

**Igor Ahedo Gurrutxaga (UPV-EHU / Parte Hartuz Ikertaldea)**





Animalien portaeraren oinarri biologikotik gaur egungo egoerara

## Ongizatea bilatzea da helburua

- Ziurgabetasunetik ihes egin
- Tentsio egoera baten aurrean defentsa edo eraso
- Ongizate egoera baten aurrean lasaitasuna eta hurbilketa


**Gizarte honek zer egoeran kokatzen gaitu?**  
**Gure ekintzekin zer egoera indartzen dugu?**





2008tik krisi egoera

# 1. Gakoa: Ziurgabetasunari eta amorruari aurre egiteko elkar-lanaren beharra

- 
- Legitimitate nortasunaren krisia (alderdi eta mugimendu klasikoak – ziurtasuna garatzeko zailtasunak)
  - Zubietan eta harremanetan oinarritutako erresistentzia nortasun irekiak (alderdi eta mugimendu demokratizatzaileak)
  - Ghettoetan eta hormetan oinarritutako nortasun itxiak (alderdi eta mugimendu xenofoboak))

**Demokrazia salbatzeko norekin dantzatu behar dugu?**



2008tik krisi egoera

## 2. Gakoa: Arazo konplexuei aurre egiteko elkarlanaren beharra

- Lankidetzazko gobernantza eta partaidetza prozesuak
  - Hiritartasuna – objektutik subjektura
  - Komunitatea – ni-tik gu-ra
- Jende asko gauza gutxitan (boterea, ekintza, kapitala, baliabideak) eta ez jende gutxi gauza askotan

**Konfiantza lantzearen beharra**



Konfiantza praktikan

### 3. Gakoa: elkar menpekotasunaren aitortza

- Zintzoena da onartzea “nik bakarrik ezin dudala”. Ez nik-pertsonak, ez nik-erakundeak: gizarte erronka nagusiek gizartean dute jatorria eta beraz, erantzun sozialak/kolektiboak behar dituzte

**Gure ezintasunetan oinarritutako konfiantza**



Konfiantza praktikan

## 4. Gakoa: lankidetzarako pizgarrietatik helmuga komunetara

- Pizgarri praktikoak
  - Beharretatik hasi
  - Baliabideak
- Helmuga komuna
  - Printzipioetan oinarritutako konpromisoa

**Prozesuan oinarritutako konfiantza**



Konfiantza praktikan

## 5. Gakoa: egoeraren azterteka komuna

- Harremanaren historiaren onarpena eta kudeaketa
- Arazoaren definizio komuna
- Akordio ezaren kudeaketa
- Aldaketa zehatzaren markoa
- Helmuga adostuta

**Aniztasunaren kudeaketan oinarritutako konfiantza**





Konfiantza praktikan

## 6. Gakoa: konfiantza-prozesua garatzeko marko argia

- Konfiantzak behar du denbora: prozesuak eta ez momentuak
- Konfiantzak behar du argitasuna: auto-stoparen metafora
- Konfiantzak behar ditu egiturak: subjektuaren bilakaera

**Denboran, argitasunean eta egituraketan oinarritutako konfiantza**



# Konfiantza praktikan

## 7. Gakoa: konfiantza-prozesuaren lidergoa

- Politikoak: Adiskidekeriatik - Patrimonializaziora
- Teknikariak: Pasibitatetik - kontrolera
- Gizarte antolatuta: Klientelismotik – purismora
- Gizarte ez antolatuta: Jarraitasunik eza – Hiper-aktibismora

**Lidergo partekatuetan, hitzartuetan eta arrazoituetan oinarritutako konfiantza**



Konfiantza praktikan

## 8. Gakoa: konfiantza-prozesuaren irudikapena

- Bidea ekinez egiten da: emaitzak sinbolikoak eta praktikoak
- Jakintza mota desberdinetan oinarritutako ekintzak eta emaitzak
- Prozesuan ekarpenak egiteko bide anitzak

**Emaitzetan, jakintza anitzetan eta ekarpenak egiteko gaitasunean oinarritutako konfiantza**



# Konfiantza praktikan

## 9. Gakoa: konfiantza-prozesuaren bihotza

- Besteekin ekin behar dugu
- Bestea, “beste” legitimo bezala onartu
- Ziurtasun ezari aurre egiteko ongizate egoera sortu
- Hurbilketa poliki-poliki aktibatu
- Helmuga argi definitu

**Elkarren arteko errekonozimenduan oinarritutako konfiantza**



Konfiantzaren onurak

## 10. Gakoa: konfiantzaren emaitzak

- Elkarren arteko ulermena
- Prozesuaren legitimitatea eta zabaltzeko gaitasuna
- Elkarren arteko eta norbanako konpromisoa
- Norbanakotasunaren haustura eta komunitatea berpiztea

**Bakarrik konfidantzak eraman ahal gaitu “Ni”-tik “Gu”-ra**





Eskerrik asko!

